

HEGOALDEKO LEHEN HEZKUNTZA IRAKASLEEN ELEANIZTASUN ETA METODOLOGIA USTEAK

Tesiaren egilea: Mikel Gartziarena San Policarpo

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Hezkuntza Zientziak

Tesi-zuzendaria: Durk Gorter eta Jon Altuna Urdin

Tesiaren laburpena:

Eskuarteko doktorego-tesiaren helbururik behinena da irakasleen eleaniztasun-eta metodologia-usteak ezagutu eta horietatik guztietatik esanguratsuenak identifikatzea.

Ikerlanaren euskarri teorikoak *Focus on Multilingualism* eredua eta susperraldian dauden ikuspegi eleaniztunak dira, zeinek hizkuntzen arteko mugak malgu ulertzen baitituzte eta, aldi berean, euskara baitute ardatz. Hizkuntzen ikuspegi integratzaile eta abegikorak zutabe dira lan honetan. Hizkuntzen ikuspegi tradizionaletik aldentzen da eta komunikazio-ikuspegira hurbiltzen, eleaniztunaren ezaugarriak hizkuntzak ikasteko aukera gisa ulertzen baititu. Eleaniztunaren hizkuntza-ezagutzak baliatzen dituzten teoriak oinarri dira hizkuntzak eraginkortasun handiagoarekin irakasteko eta errealtatetik gertuagoko hizkuntza hauspotzeko.

Emaitez ondorio anitz ekarriko dute, eta azpimarragarrienek erakutsiko dute irakasleek uste positiboak dituztela eleaniztasunaren eta metodologia modernoan alde. Erro sakonak dituzte euskararen aldeko usteek, eta irakasleek soilik ulertuko dute eleaniztasuna euskara baldin bada ardatz. Era berean, hizkuntza ororen mintzamina lantzen lagunduko dieten metodologiaren aldarria egingo dute irakasleek, hizkuntzaren ezagutzatik eta formatik ahozkorako eta erabilerarako jautsian prestutasuna erakutsirik. Irakasleen ustea da ahozko jarduna hizkuntza ororen bihotza dela. Irakasleen metodologia-usteak modernoak dira, eta ikuspegi komunikatibotik edaten dute; edonola ere, nahi baino gehiago darabiltzate metodologia tradizionalak. Doktorego-tesi honek osagai aproposak identifikatuko ditu irakasleak jardun eleaniztunetan eta ahozkotasunean oinarritutako metodologiaren trebatzeko, etorkizunari begira euskal hezkuntzan lagungarri izan daitezkeenak.